




Turismoen matrikulazioak nabarmen hazi dira

Turismoen matrikulazioa Euskadin Urte bakoitzeko otsaila




Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) berriki argitaratutako datuen arabera, **otsailean 2.612 auto matrikulatu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %11,1 gehiago**. Sektoreak hazkunde erritmoari eutsi dio bi otsailez jarraian haziz. Hala eta guztiz ere, autoen salmentek pandemia aurreko mailetatik urrun jarraitzen dute.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Aireko trafikoa hazi egin da otsailean

Euskal aireportuak. Bidaiariak Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Otsailean 465.000 pertsona baino gehiagok bidaiatu zuten Euskadiko aireportuetatik. Zenbaki horrek %2,0ko gehikuntza dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, dagoeneko bost urtez jarraian igo da aire trafikoa otsailean

Iturria: AENA



Soldata kostu osoa orduko igo egin zen 2025ean

Ordu bakoitzeko soldata kostua guztira Euroak ordu bakoitzeko




Iturria: INE

INEk argitaratutako lan kostuei buruzko hiruhileko inkestaren datuen arabera, **lan egindako ordu bakoitzeko soldata kostu osoa berriro igo zen Euskadin, 2025ean 22,2 euro kobratu ziren ordu bakoitzeko**. Horrek esan nahi du %3,3ko igoera izan zela 2024ko kostuarekin alderatuta.

Gaualdiek %1,9 egin zuten behera otsailean

Etxebizitzaren gaineko hipotekak Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Iturria: Eustat.

2026ko otsailean, **Euskadiko hotel establezimenduetako gaualdiek 1,9%ko murrizketa izan zuten aurreko urteko aldi beraren aldean**. Urtarrileko geldialdiaren ondoren, otsaileko beherakadak lau urteko hazkundeak eten ditu hil honetan. Konparazioa 2025eko zifra oso handien aldean egiten bada ere, funtsezkoa izango da hurrengo datuak jarraitzea doikuntza puntual bat edo joera aldaketa bat den zehazteko